20 18

S. BARTOLOMEKO INDUSKETAK

San Bartolome del Camino monasterioa, San Agustineko kalonjeena, XIII. mendetik, behintzat, Donostiako badia menderatzen duen harresietatik kanpoko mendixka txiki batean kokatuta zegoen. Monasterioa XVII eta XVIII. mendeetan erreformatu zen, guden ondorioz kaltetuta zegoelako. Lehenengo Karlistadan berriro suntsitu zuten, eta horren ondorioz, XIX. mende erdialdean, Astigarragako erlijio komunitatera eraman zuten.

Desagertutako Monasterioaren inguruan hirigintza esku-hartzea burutzeko helburuarekin, eta zenbait zundaketa burutu ondoren, arkeologia indusketa egin zen zonaldean zehar, bi fasetan. Esan bezala, indusketa bi fasetan zatitu behar izan zen, gainjarrita zeuden eraikinak ezabatzeko erritmoaren eraginez.


Lehenengo fasea 2007. urtean egin zen, eta horretan, monasterioaren elizaren iparraldeko sektorea aurkitzea lortu zuten, XVIII. mendekoa. Hura zaharragoa zen beste baten gainean eraiki zuten. Gurutze latindarreko planta zeukan, eta buruaren eta transeptuaren zenbait horma kontserbatu dira.

Barrualdean 250 eskeleto aurkitu zituzten, zaharrenak harkaitzean induskatutako hilobietan (aurreko tenpluarenak) eta gainontzekoak, berriz, buztineko hilobitan. Tenpluaren hormak harkaitzean oinarritzen ziren, eta ia perimetro osoa kanpora ateratzea lortu zuten. Hala ere, bertako zati txiki bat suntsituta zegoen eta zimenduak oinarritu ziren zanga soilik kontserbatzen zen. Arekolanek egindako arkeologia azterketaren ondoren, zenbait harlandu erreserbatu zen parke batean ipintzeko helburuarekin.

Indusketaren bigarren fasea (3000 m2) 2014. urtean garatu zen eta bertan, erregistratu zen indusketaren lehenengo fasean falta zen elizaren zati, klaustro nagusia (17 metroko alboa) eta beste klaustro txiki bat. Horien inguruan monasterioen gela tipikoak antolatzen ziren, gehienbat XVII eta XVIII. mendekoak. Horiek behin eta berriro eraiki ziren gudaren ondorioz suntsitu ondoren.

Aurkitutako zenbait egiturak bi metro altuera baino gehiago zuen, eta bertan hainbat zoladura guztiz kontserbatzen dira. Lehenengo fasean bezala, hilobi ugari aurkitu ziren, batzuk lauzek mugatuta.

Gehiago jakiteko: Arkeoikuska, 2007 eta 2014. urteak.



XVIII. mendeko elizaren plantako zirriborroa, indusketaren bi faseen artean erregistratuta.



Eredu baten arabera landutako harlanduak. Horiek 2007. urtean gorde ziren etorkizunean parke batean instalatzeko.



Ortoargazkia 2007. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. PNOA. UTM 30N ETRS89 // X: 582293 m // Y: 4796288 m.

Indusketaren lehenengo fasea, batez ere monasterioaren elizarekin (XVIII.m) eta barruko hilobiekin lotuta, zaharragoa zen beste eliza baten gainean jarrita. Azen horri zegokionez, barrualdeko hilobien multzoaren egiturak bakarrik aurkitu ziren. Ortoargazkiaren bereizmenak (0,5 metroko pixelak) ez du induskatutako egiturak argi ikusten uzten. Hala ere, elizaren inguruko hormak ikus daitezke.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Indusketaren bigarren fasea, Donostiako polizia bulego zaharren eta ospitale militar ohiaren inguruan eginak. Ortoargazkiaren bereizmenak (0,25 m) induskatutako egiturak 2007ko fasearen ortoargazkian baino askoz argiago ikusteko aukera ematen du.

1 . Elizaren eta inguruko hegoaldeko sektorea, 2007an induskatutako sektorea osatzen duena. Zonalde honek altuera handieneko egiturak ditu.

2. Klaustro nagusia, hainbat gelarekin bere inguruan, eta horietako batzuk nahiko ondo kontserbatuta dagoen zoruarekin.

3. Planta zirkularreko putzua, 9 m sakonerarekin, harlanduez estalita.



Geletako baten zoru osoa.



2014. urtean aurkitutako hilobietako bat



Putzuaren barrualdea.



San Bartolomeko monasterioaren indusketaren bigarren fasea. Zonalde honetan egiturek 2 metroak gainditzen zituzten lurreko kotarekiko. Eraitsi ziren.